



# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

## B2 MAILA ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO PROBAREN

### DESKRIBAPENA

#### 1. PROBAREN HELBURUA

Azterketariak komunikatzeko duen gaitasuna eta hizkuntza erabiltzeko duen gaitasuna ebaluatzea da probaren helburua.

Probaren bidez, ohiko egoeratan edota egoera berezietan, informazioa jasotzean nahiz ematean, ikaslea hizkuntza erraz eta eraginkortasunez erabiltzeko gai den ebaluatuko da; baita kontzeptutan nahiz hizkuntzan konplexuak diren ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko, ekoizteko, eta lantzeko gai den ere. Probako testuak hizkuntza estandarrean idatzitakoak izango dira, errepertorio lexiko zabala eta ez oso idiomatikoa erabiltzen dutenak. Testu horiek, halaber, gai orokorrei, gaur egungo gaiei, gai zehatzei edo gai abstraktuei buruzkoak izan daitezke, eta espezializazio handikoak ez diren gai teknikoak jorratzen dituztenak.

B2ko probaren maila finkatzeko, Europako Kontseiluaren B2 mailaren berezko gaitasunak hartuko dira oinarri, hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan definitu bezala.

Informazio gehiago: *Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntza Irakaskuntza Berezien [Maila Aurreratuaren Curriculumua](#).*

#### 2. PROBAREN DESKRIBAPENA

##### 2.1. Egitura eta iraupena

- Probak lau atal izango ditu. Atal bakoitzean trebetasun bat ebaluatuko da: irakurriaren ulermena, entzunaren ulermena, idatzizko adierazpena eta ahozko adierazpena. Lehenengo hiru atalek idatzizko proba osatzen dute eta saio bakar batean egiten dira. Azkena ahozko proba da eta beste saio batean egiten da.
- Iraupena (gehienez): 3 ordu eta 30 minutu honela banatuta: 3:10 ordu (gehienez) idatzizko proba egiteko, eta 20 minutu ahozko probarako.

##### 2.2. Puntuazioa

- B2 Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko, azterketariak atal guztiak gainditu beharko ditu. Puntu guztien bi heren lortu behar du gutxienez. Hartara, idatzizko proban jokoan diren 90 puntuetatik 60 lortu behar ditu, atal bakoitzean, 30 puntutik 20. Ahozko proban ere puntuen bi heren lortu behar du (30 puntutik 20).
- Nolanahi ere, idatzizko probaren ataletako batean puntuen bi herenetik beherako puntuazioa orekatu ahal izango da, baldin eta puntuazio txikiago hori atal bakar batean ematen bada, gutxienez 17 puntura iristen bada eta idatzizko probaren beste atalen batean gutxienerako puntu-kopurura (60 puntura) iristeko nahikoa puntu badaude.
- Ahozko adierazpenaren atala ezingo da orekatu.

### 2.3. Ahozko probarako deialdia

Idatzizko proba behin osorik gaindituta, azterketariari ahozko proba egiteko deituko zaio. Hala ere, idatzizko proba gainditu gabe daukaten azterketariek ahozko proba egiteko eskaera egin dezakete matrikulatuta dauden eskoletan. Horretarako, emango zaien inprimakia bete beharko dute:

- Ikasle libreek: ekainean
- Ikasle ofizialek: irailean

Dena dela, ahozko proba gainditzeak, idatzizkoa suspendituta duela, ez dio azterketariari (B2) maila Aurreratuko ziurtagiria eskuratzeko eskubiderik emango.

### 2.4. Probaren zatien deskribapena

#### Irakurriaren Ulermena

EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
3/4	30 puntu (%25)	20 puntu	60 minutu

HELBURUAK	TESTU-MOTA POSIBLEAK	ARIKETA-MOTAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Gaurkotasuna duten gaiei buruzko iritzi-artikuluetakoa ikuspuntuak identifikatzea.</li> <li>◆ Argudio-diskurtsoetako tesia, argudioak eta ondorioak hautematea, eta diskurtsoaren eskema identifikatzea.</li> <li>◆ Argibide nahiz arau luze eta konplexuak ulertzea.</li> <li>◆ Testu luzeetan informazio zehatza aurkitzea.</li> <li>◆ Oso espezializatuak ez diren albiste, artikulu, txosten eta iragarkietako eduki nahiz puntu garrantzitsuak azkar identifikatzea.</li> <li>◆ Testuak zehatz-mehatz ulertzea, gaitasun lexikoa eta gramatikala aplikatuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Gutun eta mezu pertsonalak (mezu elektronikoak, faxa, posta arrunta) honako hauek helarazteko: informazioa, interesak, beharrak, bizipenak, iritziak, iruzkinak, erreakzioak eta sentimenduak.</li> <li>◆ Gutun formal pertsonalak, akademikoak edo profesionalak (posta arrunta, mezu elektronikoak eta faxa) informazioa eman edo eskatzeko, laguntza edo zerbitzuak eskatzeko, arazoak azaltzeko, erreklamazioak egiteko, edo eskerrak emateko.</li> <li>◆ Eztabaida-leku birtualetan gai ezagunei buruzko mezuak.</li> <li>◆ Aisialdiko gidak eta katalogoak</li> <li>◆ Webguneak, blogak edo antzekoak.</li> <li>◆ Liburuxkak eta erabilera-orriak.</li> <li>◆ Jarraibideak eta arauak.</li> <li>◆ Lan-iragarkiak.</li> <li>◆ Iragarkiak.</li> <li>◆ Txostenak.</li> <li>◆ Prentsa: albisteak, dibulgazio-artikuluak, erreportajeak, elkarrizketak, editorialak, iritzi-artikuluak.</li> <li>◆ Administrazioako testu arruntak.</li> <li>◆ Biografiak</li> <li>◆ Kontakizunak, ipuinak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ erantzuna: aukera anitzekoak.</li> <li>◆ egia/gezurra:</li> <li>◆ informazio-transferentzia</li> <li>◆ testuak ordenatzekoak</li> <li>◆ erlazionatzea: (egoerak edo epigrafeak testuekin lotzea / esaldiak zer testutakoak diren edo esaldiek zer testurekin lotura duten esatea)</li> <li>◆ hutsuneak betetzea: (hutsuneak esaldiekin betetzea/ hitz-zerrenda batean bildutako osagaiekin hutsuneak bete eta zenbakidun gelaxka batean jartzea / hutsuneetan aukera zuzena jarriz testua osatzea / hutsuneetan hitz bakarria jarriz testua osatzea).</li> <li>◆ erantzun bakarreko galdera irekiak</li> </ul>

**Entzunaren Ulermena**

EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA GEHIENEZ
2 edo 3	30 puntu (%25)	20 puntu	40 minutu

HELBURUAK	TESTU-MOTA POSIBLEAK	ARIKETA-MOTAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Eztabaida formalak nahiz lagunartekoak konprenitzea, solaskide bakoitzaren iritziak xehetasunez ulertuz, baita iritzi horiei eusteko argudioak eta komunikazio-asmoak ere.</li> <li>◆ Aholkuak, argibideak eta informazio zehatza ulertzea, baita auzi orokorrei buruzkoak edo apur bat espezializatuak diren aholkuak ulertzea ere.</li> <li>◆ Keinuen, isiluneen, etenaldien, etenduren, intonazioaren eta tonuaren komunikazio-asmoez ohartzea.</li> <li>◆ Gizartean entzun ohi diren eta izaera akademiko zein profesionalekoak diren hitzaldiak, txostenak, hizketaldiak, azalpenak eta kontaketak zailtasunik gabe ulertzea, argudioen ildoak eta hizkera konplexuak badira ere.</li> <li>◆ Konferentzia eta aurkezpenetan, ideia nagusiei eta informazio garrantzitsuari buruzko ohar zehatzak hartzea.</li> <li>◆ Iragarki publikoetako informazioaz eta helburuaz jabetzea.</li> <li>◆ Pelikula eta antzerki lan gehienak jarraitzea, beti ere egitura eta zailtasun maila handiegia ez badaukate.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Gai pertsonal, orokor, sozial, akademiko, profesional eta aisialdiko gai ugari buruzko solasaldi informalak. Inguruko zarata egon ohi da, eta testuetan, informazioa, bizipenak, iruzkinak nahiz ikuspuntuak trukutzen dira.</li> <li>◆ Elkarrizketa formalak, ez-ohiko gaiei buruzkoak ere bai.</li> <li>◆ Telefono-bidezko elkarrizketa formal edo informalak, eta bideokonferentziak.</li> <li>◆ Kultura edo unean-uneko gai ezagunei buruzko iruzkinak eta iritziak.</li> <li>◆ Izapide komertzialak eta administratiboak</li> <li>◆ Elkarrizketak.</li> <li>◆ Gai abstraktu edo konkretuei buruzko azalpenak.</li> <li>◆ Gai orokorrei, gai teknikoei eta espezializazio ukitua duten gaiei buruzko mahai-inguruak eta debateak, hizkuntza estandarrean.</li> <li>◆ Jarraibide, arau, ohar eta argibide zehatzak.</li> <li>◆ Testuinguruan kokatutako azalpen, aurkezpen, deskribapen eta kontaketak.</li> <li>◆ Aski ezagunak diren gaiei buruzko hitzaldi eta konferentziak.</li> <li>◆ Ozen irakurritako testuak (literatura, audio-liburuak...)</li> <li>◆ Elkarrizketa dramatizatuak, hizkuntza estandarrean eginikoak (telesailak, pelikulak, irratsaioak).</li> <li>◆ Erantzungailuan grabatutako jarraibideak eta mezuak.</li> <li>◆ Iragarkiak (irratia, telebista, etab.).</li> <li>◆ Gaur egungo gertakariak eta gaiak.</li> <li>◆ Gai orokorrei buruzko dokumentalak eta erreportajeak (telebista, bideoak).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Erantzuna: aukera anitzekoak.</li> <li>◆ Egia/gezurra</li> <li>◆ Informazio-transferentzia</li> <li>◆ Erlazionatzea</li> <li>◆ Ordenan jartzeko lanak</li> <li>◆ Erantzun bakarreko galdera irekiak</li> </ul>

**Idatzizko Adierazpena**

EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	30 (10 + 20) puntu (%25)	20 puntu	90 minutu

**HELBURUAK**

- ◆ Gizartean ohikoak diren testuak idaztea, egoera eta solaskide jakin bati egokiturikoak.
- ◆ Informazioa, emozioak, ideiak eta ikuspuntuak transmititzea, gai konkretu edo abstraktuekin lotutakoak. Informazioa ziurtatzea, galderak egitea edo arazoen berri ematea zehaztasun dezentez.
- ◆ Gutun, mezu edo oharak idaztea, informazioa emanez edo berehalako azalpenak eskatuz, eta garrantzizkotzat jotzen dituen alderdiak nabarmenduz.
- ◆ Gutun formalak edo agiri administratiboak idaztea, zerbitzuak eskatu edo eskertzeko, erreklamazioak egiteko, edo datuak zuzentzeko.
- ◆ Iritzia ematea eta justifikatzea.
- ◆ Gai ugariri buruzko testu argi eta zehatzak idaztea, hainbat iturritako informazioa eta argudioak laburtu eta ebaluatuz.
- ◆ Arazo batek izan ditzakeen konponbideak alderatu eta balioestea.
- ◆ Argibide xeheak idaztea.
- ◆ Lan-eskabideak eta erreklamazioak idaztea.
- ◆ Ikuspuntu jakinen aldeko edo kontrako argudio-saiakera eta txostenak idaztea, aukeren abantailak eta desabantailak deskribatuz, alderdi esanguratsuak nabarmenduz eta lagungarri izango diren xehetasun esanguratsuak emanez.
- ◆ Iturri ezberdinetako informazioa batzea eta laburbiltzea.
- ◆ Testu egituratuak egitea, benetako bizipenak eta imajinatutakoak argi eta zehatz azalduz, ideien arteko lotura aditzera emanez, eta ezarritako arauak errespetatuz.

**TESTU-MOTA POSIBLEAK**

- ◆ Gizartean ohikoak diren testuak, formalak nahiz lagunartekoak.
- ◆ Gutun eta mezu pertsonalak (mezu elektronikoak, faxa, posta arrunta) honako hauek trukatzeko: informazioa, interesak, beharrak, bizipenak, iritziak, iruzkinak, erreakzioak eta sentimenduak.
- ◆ Gutun formal pertsonalak, akademikoak edo profesionalak, informazioa eman edo eskatzeko, laguntza edo zerbitzuak eskatzeko, arazoak azaltzeko, erreklamazioak egiteko, edo eskerrak emateko.
- ◆ Agiri administratiboak (eskabideak, erreklamazioak, datuen zuzenketak, eta abar).
- ◆ Galdeketak.
- ◆ Foro birtualetako mezuak.
- ◆ Informazioa emateko testuak.
- ◆ Iritzi eta argudio-testuak.
- ◆ Txostenak (egoerak aurkeztea, aukeren abantailak eta desabantailak azaltzea, eta abar).
- ◆ Bizipenak, gertakariak, istorioak, benetako gertakariak eta imajinatutakoak kontatzea.
- ◆ Pertsonak, gauzak, jarduerak, zerbitzuak eta lekuak deskribatzea.
- ◆ Planak eta proiektuak.
- ◆ Jarraibideak eta arauak

**ARIKETA-MOTAK****1. ataza: Ekoizpen laburra**

Azterketariari hurrengo ekintzetatik **bat** eskatuko zaio:

- a) Ariketa bideratua:
  - Testu bat edo testu baten hainbat zati berridaztea, aldatzea edo birformulatzea.
  - Testu bat zuzentzea.

- Aurrez emandako informazioa edo zenbait elementu oinarri harturik, testu bat sortzea \*.
- b) Idazlana\*: egoera edo hasierako proposamen bati erantzunez, testu bat sortzea.

\*Eskatutako hitz kopurua: **90 eta 110 hitz artean.**

## 2. ataza: Ekoizpen luzea

Testu, egoera edo hasierako proposamen bati erantzunez, azterketariak honako testuetako bat idatzi beharko du:

- ◆ Norberaren interesekoa den gai orokor bati buruzko iritzi-testua (zuzendariarentzako gutuna, bloga, eta abar), ikuspuntua zehatz azalduz eta, beharrezkoa balitz, adibideak emanez.
- ◆ Gertakari ezagunei buruzko txostena prestatzea, egoera zehaztuz, hartutako neurriak justifikatuz eta giltza diren alderdiak nabarmenduz.
- ◆ Arazo bat azaltzeko testua, alderdi ezberdinak konparatuz eta konponbideak proposatuz.
- ◆ alderdi, lan edo plan bati buruzko argibide zehatzak idaztea.
- ◆ Argudio-testua, ikuspuntu jakin baten alde edo kontra, non hainbat aukeraren abantailak eta desabantailak deskribatzen diren.

Ariketa honetan, gerta daitezkeen **bi egoera, arazo edo gai** proposatuko zaizkio azterketariari. Azterketariak bietako bat aukeratu beharko du ariketa gauzatzeko.

**Adi:** idatzitako testua argibideetan azaldutako alderdiak kontuan hartuta egingo du azterketariak

### Eskatutako hitz kopurua:

- ◆ Alemana eta euskara: 190 eta 210 hitz artean
- ◆ Frantsesa eta ingelesa: 230 eta 250 hitz artean.

### Ahozko Adierazpena

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	30 (15 +15) puntu (%25)	20 puntu	20 minutu

### HELBURUAK

#### Bakarrizketa:

- ◆ Gai orokorre buruzko ideia eta iritziak argi, seguru eta erritmo erregularrean azaltzea, entzuleari tentsiorik ez eragiteko moduan.
- ◆ Gai ugari buruzko deskribapen eta aurkezpen luze, argi eta zehatzak naturaltasunez egitea. Azterketariak bere ideiak azaldu eta defendatu beharko ditu, alderdi osagarriak zein adibide esanguratsuak txertatuz.
- ◆ Diskurtsoa egituratzea, datuak malgutasunez lotzea eta koherentziari eustea.
- ◆ Denbora-, espazio- edo logika-loturak eta iritzia argi uztea.
- ◆ Esperientzia, amets, itxaropen eta desira, gertakizunak – benetakoak edo asmatutakoak – deskribatzea, sentimenduak eta erantzunak azalduz.
- ◆ Iritzi, plan eta ekintzen argudio, arrazoibide eta azalpenak garatzea.

#### Elkarreragina:

- ◆ Gai orokorre buruzko eztabaida, elkarrizketa eta negoziazioetan modu aktiboan parte hartzea.
- ◆ Norberaren ideia eta iritziak zehatz aditzera ematea, argudio-ildo konplexuak eta adibideak modu

sinesgarrian aurkeztea, eta horrelakoei egoki erantzutea.

- ◆ Azalpenak eman eta zehaztasun jakin batzuei buruz argibideak eskatzea.
- ◆ Gai edo arazoak argi azaltzea, dauden aukeren abantailak eta desabantailak ebaluatuz.
- ◆ Prozedurak nola egin zehatz eta argi deskribatzea.
- ◆ Gai ugari buruzko informazioa, argudioak eta aholkuak trukatzea.
- ◆ Galderak erantzun eta solaskideen zalantzak argitzea.
- ◆ Solasaldien bilakaeran laguntzea, solaskideekin kooperatuz.
- ◆ Modu egokian hitza hartzea, hitza ematea, mintzatzea eta amaitzea.
- ◆ Ulermen hutsuneak adieraztea.
- ◆ Hizketakideek ulertu dutela ziurtatzea.
- ◆ Errepikatuz, gauza bera beste era batera esanez edo parafraseatuz, esandakoa ulertu dela egiaztatzea.
- ◆ Esanahiak argitzea, baliabide ugari erabiliz.
- ◆ Ulertu dela egiaztatzea, solaskideak esandakoa norberaren hitzak erabiliz errepikatzearen bidez.

---

### TESTU-MOTA POSIBLEAK

---

**Bakarrizketa:** Beste ikasle bati edo batzuei emaniko azalpena.

**Elkarreragina:** Hizketaldia beste ikasle batekin edo batzuekin.

---

### ARIKETA-MOTAK

---

#### 1. ataza: bakarrizketa

Azterketariak 150 eta 200 hitz arteko testua edota argazkiak, irudiak nahiz grafiko iruzkinduak jasoko dituzte. Horiek guztiak probarako proposatu den gaiari buruzkoak izango dira. Testu, argazki edota irudiekin batera informazioa emango zaio ikasleari. Azterketariak informazio horretaz balia daitezke ariketa gauzatzeko.

Azterketari bakoitzak proposatutako gaiaren gainean aritu beharko du, beste azterketariari bere ikuspuntua azalduz, informazioa gehituz, bere iritzia adieraziz.

Azterketariak 20 minutu izango du ataza hau prestatzeko.

Denbora: azterketari bakoitzak 4 eta 5 minutu artean izango ditu bere azalpena gauzatzeko.

#### 2. ataza: elkarreragina

Azterketariak elkarrekin hitz egingo dute, informazioa elkarri helaraziko diote eta nor bere iritzia adierazi beharko dio besteari. Arazo baten balizko zioak aztertuko dituzte; irtenbideak alderatuko dituzte eta hainbat alorren gaineko auziei buruzko informazioa trukatu dute.

Azterketariak galderak egin eta galderei erantzun beharko diete; hitza hartu eta solaskideari hitz egiten utzi beharko diote; hau da, solasaldia kontrolatzearekin lotura duten funtzio guztiak gauzatu beharko dituzte.

Azterketariak orri bat jasoko dute; proposatutako ariketa eta ariketa gauzatzeko beharrezkoa den informazio guztia azalduko zaie bertan.

Ez du denborarik izango ataza hau prestatzeko

Ataza gauzatzeko denbora: 5 eta 6 minutu artean.

---

**Ahozko proba bikoteka egingo da (salbuesenez, ahozkoa hiru edo banaka egingo da).**

[Ahozko adierazpen probari buruzko azalpen zehatzagoa.](#)

**3. ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK****Idatzizko Adierazpena**

IRIZPIDEAK	ZER EBALUATUKO DA
Egokitasuna: ariketa bete izana eta koherentzia komunikatiboa	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ ulergarritasuna.</li> <li>◆ ariketan eskatutakoa betetzea.</li> <li>◆ erregistro estandarri –formalari edo lagunartekoari–, hartzaileari, xedeari eta egoerari egokitzea.</li> <li>◆ informazioaren eta ideien antolaketa</li> </ul>
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ ideien kohesioa: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ diskurtsoko lokailuak egoki erabiliz.</li> <li>○ erreferentzia-mekanismoen bidez.</li> </ul> </li> <li>◆ puntuazio-ikurrak.</li> </ul>
Aberastasuna eta zehaztasuna: lexikoa eta morfosintaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ elementu lexikoen erabilera.</li> <li>◆ adierazpen idiomatikoaren erabilera.</li> <li>◆ baliabide lexikoen ugaritasuna eta zabaltasuna.</li> <li>◆ egitura morfosintaktikoaren erabilera.</li> <li>◆ baliabide gramatikalen ugaritasuna eta aniztasuna.</li> </ul>
Zuzentasun morfosintaktikoa eta ortografikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ mailako baliabide linguistikoak kontrolatzea, ohiko funtzioak betetzeko.</li> <li>◆ elementu lexikoen forma.</li> <li>◆ azentuazioa (hizkuntza batzuetan)</li> </ul>

**Ahozko Adierazpena**

IRIZPIDEAK	ZER EBALUATUKO DA
Egokitasuna eta eraginkortasun komunikatiboa	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ ulergarritasuna.</li> <li>◆ ariketa komunikatiboan eskatutakoa betetzea.</li> <li>◆ erregistroari egokitzea</li> <li>◆ informazioaren eta ideien antolaketa.</li> </ul>
Kohesioa eta naturaltasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ ideien kohesioa: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ diskurtsoko lokailuak egoki erabiliz.</li> <li>○ erreferentzia-mekanismoak erabiliz.</li> </ul> </li> <li>◆ etorria, erritmoa eta naturaltasunez mintzatzea.</li> </ul>
Aberastasuna eta zehaztasuna: lexikoa eta morfosintaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ erabilitako hiztegiaren zehaztasuna.</li> <li>◆ egitura morfosintaktikoaren erabilera.</li> <li>◆ baliabide lexikoen eta gramatikalen ugaritasuna eta aniztasuna.</li> </ul>
Zuzentasuna eta ahoskera	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ mailako baliabide linguistikoak kontrolatzea.</li> <li>◆ doinuaren nahiz ahoskeraren naturaltasuna eta argitasuna.</li> </ul>

#### 4. AZTERKETA EREDUA: ARIKETAK. ADIBIDE PRAKTIKOAK

[Azterketa ereduak eta ariketa praktikoak.](#)

#### 5. PROBA EGITEAREKIN ETA ADMINISTRATZEAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT KONTU

##### Administrazioa

- ◆ **Proba egin ahal izateko baldintzak**  
B2 Mailaren ziurtagiria lortzeko proba egiteko, nahitaezko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako batean matrikulatuta egotea dagokion hizkuntza eta mailan.
- ◆ **Deialdiak**  
Azterketetako egutegia kontsulta daiteke ikasturte bakoitzari dagokion ebazpenean, ikasle ofizialenean zein azterketari libreenean.
- ◆ **Proba ezintasunen bat duten pertsonen egokitzea**  
Ezintasunen bat duten ikasleen behar berezietara egoki daitezke probak. Horretarako, matrikulatzean, dagokion eskolan jakinarazi beharko du hori interesatuak.
- ◆ **Proba berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea.**  
Antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren arabera –bertan zehazten da zein diren ikasleen eskubide eta betebeharrak– edozein azterketarik uste badu ebaluazio-prozesua ez dela egokitu araudian ezarritakora, proba berrikusteko eskaera egin dezake proba egin duen Hizkuntza Eskola Ofizialean, eskola bakoitzak aurreikusitako egutegia errespetatuz, betiere. Dagokion hizkuntza-departamentuak azalpenak emango dizkio interesatuari.

##### Azterketariaren eginbeharrak eta erantzukizunak

	Probaren aurretik	Proban zehar
<b>EGINBEHARRAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Gogoratu NAN, pasaporte eta edo nor zaren egiaztatuko duen beste agiriren bat aurkeztu beharko duzula azterketa-gelan eskatutakoan.</li> <li>◆ Tinta beltz edo urdinezko boligrafoa ekarri behar duzu probara.</li> <li>◆ Proba normaltasunez egitea oztoka dezakeer edozein arrazoiren berri eman behar zaizkizue eskolako Ikasketa Burutzari, gutxienez proba egin baino aste bete lehenago. Ikastetxeko Zuzendaritzak erabakiko du aurkeztutako arrazoiak onartu ala ez; edozein kasutan, ordaindutakoa ez da itzuliko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Erantzun guztiak boligrafo beltz edo urdinaz idatziz idatzi. Ez da zuzenduko proba ofizialaren itxura bera ez duen probarik; ezta arkatzez idatzitakorik ere. Ez ezazu erabili ezabatzen den boligrafoa.</li> <li>◆ <b>Itzali gailu elektroniko guztiak, telefono mugikorra eta erloju elektronikoa barne.</b> Azterketa egin bitartean, ezin izango da horrelako gailurik erabili, ezta denbora kontrolatzeko ere. Arau hau bete ezean, azterketa baliogabetu egingo da.</li> </ul>
<b>ERANTZUKIZUNAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Ondo begiratu probaren eguna, ordua eta gela zein diren eta antolatu garaiz iristeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Behar bezala antolatu eta banatu ariketa bakoitza egiteko dagoen denbora. Denborak kalkulatu daude eta ariketa bakoitza egiteko nahikoa asti dago. Komenigarria izaten da berrikustea eta egon daitezkeen akatsak zuzentzea.</li> <li>◆ Arretaz irakurri ariketa eta zati bakoitzerako emandako argibideak.</li> <li>◆ Letra argia erabili ariketa osoan. Zuzentzat emandako erantzunak argi geratu direla ziurtatu.</li> <li>◆ Garrantzitsua da lasai egotea eta proba egiteko ematen diren argibideak arretaz jarraitzea, batez ere entzunaren ulermenari dagokion zatian.</li> </ul>



## 6. INDARREAN DEN ARAUDIA

### Lege eta administrazio arauak

B2 Mailari dagokion Ziurtagiria lortzeko probak legean eta administrazioan arauturik daude, jarraian aipatuko ditugun lege eta agirietan, hain zuzen:

- ◆ [2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa](#).
- ◆ [Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretua](#) zeinaren bidez Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoan, maiatzaren 3koan, arauturik dauden erregimen bereziko hizkuntza-ikasketen curriculumaren oinarritzko alderdiak ezarri diren.
- ◆ [46/2009 Dekretua, otsailaren 24koa](#). EHAA - 2009ko martxoak 12, osteguna 50 zk. Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailetako –oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila– curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira:
- ◆ Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntza Irakaskuntza Berezien [Maila Aurreratuaren curriculuma](#).
- ◆ EAEko HEOetako Maila Aurreratuaren dagokion **zertifikazio-probaren zehaztasunak** biltzen dituen dokumentua.
- ◆ [Agindua, 2012ko maiatzaren 15ekoa](#), Erregimen Bereziko Hizkuntza Ikasketak **ebalatu** eta egiaztatzea arautzeko dena (EHAA, 113. zkia – 2012ko ekainaren 11koa)
- ◆ **Ebazpena** Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako **proba libreen deialdia** arautu eta probak nola egingo diren finkatzekoa, oraingo ikasturte honi dagokiona.

### Probaren maila.

B2 Mailaren probaren maila honako lege-dokumentu hauetan jasotakoa da:

- ◆ [1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa](#). Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarritzko alderdiak finkatzen dira dekretu horretan. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.
- ◆ [46/2009 Dekretua, otsailaren 24koa](#). EHAA - 2009ko martxoak 12, osteguna 50 zk. Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailetako- oinarritzkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.
- ◆ Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Araubide Bereziko Hizkuntza Ikasketetako [Maila Aurreratuari dagokion Curriculumua](#).
- ◆ [Europako Erreferentzi Marko Bateratua](#), batez ere:
  - 3.3 puntua, 1. koadroa (32. orrialdean)
  - 3.5 puntua, 2. koadroa (34 – 35. orrialdeetan)

## **Informazioa.**

- ◆ Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hizkuntza Eskola Ofizialen Web orria: <http://www.euskadi.eus/heo>
- ◆ Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren Web orria: <http://www.euskadi.eus/heo>
- ◆ Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzako-hezkuntza-saila/>